

Oarsoaldea, Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalen Garapen Agentzia, 1993an sortua izan zen eskualdeko garapen jasagarria sustatzeko helburuarekin. Gaur egun, tokian tokiko erreferentzi bat da **pertsona langabetuentzat, ekintzaileentzat, enprezentzat, biztanleentzat eta bisitariarentzat**.

Oarsoaldean gure zerbitzuak eta lan egiteko moduak diseinatu ditugu gure bezeroek **arreta pertsonalizatua** eta **espezializatua** jaso dezaten. Gure bezeroei bermea emateko xedez, gure kalitate-sistema ziurtatu dugu **UNE-ISO 9001:2015** nazioarteko arauari jarraiki; bide batez, une oro aplikatu daitezkeen legezko baldintzak beteaz.

Oarsoaldean kalitatea erronka bat da eta **Hiri-Berriztapenerako, Industria Sustatzeko, Enpresa Txikiei Laguntzeko, Turismoa Sustatzeko, Enplegurako, Kontsumitzailea Informatzeko** eta **Euskara Sustatzeko** zerbitzuen bidez gure bezeroen beharrak asetzen direla eta etengabe hobetzen direla bermatu nahi dugu.

Oarsoaldearen **Kalitate Politikak** hurrengo alderdiak landu nahi ditu:

- Kalitatearen Politikak, antolaketaren politika orokorrarekin eta erakundearen ingurunearekin koherentzia du eta kalitatezko helburuak ezarri eta ikuskatzeko erreferentzi esparrua eskuratzen du.
- Kalitatearen Politika onartu, ulertu eta mantendu egin behar da.
- Kalitatearen Politika Agentziaren maila guztietan jakinaraziko da eta **Oarsoaldea**ko langile guztiek ulertuko dute.
- Kalitate Politika Oarsoaldearen interes talde guztientzat eskuragarri egongo da.
- Kalitatearen Politika aldizka ikuskatuko da Kalitatearen Batzordeak etengabe egokituko.

Oarsoaldea, gure eskualdeko etorkizuna sustatzeko prozesuan parte hartzaile den enpresa bezala finkatu nahi dugu eta horretarako, pertsona guztien inplikazioa behar dugu, gogoz eskainitako zerbitzuetan eta proiektuen garapenean, non profesional bakoitzak bere bezeroak ezagutzen dituen eta **banan-banako arreta** bermatzen den.

Helburu hau lortzeko, **Oarsoaldea**k bere profesionalen **etengabeko prestakuntza** bultzatzen du. Lehenetsia da langileen garapen pertsonala aintzakotzat hartzea, etengabeko prestakuntza planak ezarriaz bai eta kalitatearen-helburuekiko langileen konpromisoa eta parte hartzea erraztuko duten komunikazio-bideak egituratuaz.

Bestalde, zenbait **hizkuntza irizpide** definitu dira **Oarsoaldea**n euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izan dadin.

Era berean, egunetik egunera ingurugiroarekiko daukagun jokabide eta portaera hobetzea dugu xede, **Oarsoaldea**k eguneroko lanean sortaraz ditzakeen kalteak gutxitzeko helburuarekin. Nagusiki, kutsadura saihesteko eta, beti ere, "garapen iraunkorra" defendatuz; aukeren berdintasuna sustatuz eta lanpostu bakoitzean osasuna ziurtatuz. Modu honetan, lan inguru zurrak bermatuz, kalteen prebentzioarekiko konpromisoa hartuz eta baita langileen osasuna zainduz ere. Guzti honekin, laneko segurtasun eta osasunaren kudeaketaren etengabeko hobekuntzan lan eginez.

Bestalde, **Oarsoaldea**k berrikuntzaren aldeko apustua egin du eta bukaera definitu gabe duen bideari ekin diote, helmuga konkreturik gabekoa, izan ere, **Etengabeko Berrikuntza** enpresaren estrategian sartu dugu. Berrikuntzaren alorrean, **Oarsoaldea**k garatutako proiektu bakoitzean eboluzioa bat bilatzen du, aldaketaren bat, edota baita garapen desberdin bat ere, esaterako, teknologia berrien erabilera sustatuz, hobekuntza taldeen bitartez, testuingurura egokitutako bide estrategikoak definituz...

Azkenik, **Oarsoaldea**ko zuzendaritzak kalitate sistemaren mesedetan:

- Kontuan hartuko ditu barneko langileek eta gure interes taldeek egindako **proposamenak eta iradokizunak**, lan-baliabideak eta metodoak hobetzeko.
- Agentziako langileei eta interes taldeei **kalitate politika** hau **komunikatzen** eta era berean **betearazten** konprometitzen da.
- **Kalitate politika** eta bertatik eratorritako helburuak, erakundearen xedeetara **egokitzen** ditu.
- **Baliabideez hornituko du** eta hobekuntza etengaberako jarduerak sustatuko ditu, zerbitzuaren kalitate hobereana eskaintzeak sortutako interes komunez pertsona guztiek parte har dezaten.
- Helburuen jarraipena egiten du Kalitatearen Kudeaketa Sistema Jarraitzeko bileretan.
- Kalitatearen Politika aldatuz gero, **Oarsoaldea**ko Zuzendaritzak **Agentzia guztiari jakinaraziko** dio.